

2024

Prestakuntza- Jardueren

PROGRAMA

URTARRILA - EKAINA



COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE NAVARRA
NAFARROAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA

NAVARRA · NAFARROA

Prestakuntza Jardueren PROGRAMA

Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargoak 2024ko lehen seihileko honetarako prestakuntza-proposamen berri hau aurkeztu du. Prestakuntza-proposamenaren bidez, denboran zehar formatu eta eduki aldetik bidali dizkiguzuen iradokizunak jasotzen ahalegindu gara; baita, plangintza egin aurretik urtero bidaltzen dizuegun galdetegiaren bidez jasotakoak ere.

Formatuari dagokionez, gero eta pertsona gehiagok eskatzen digute etengabeko prestakuntza, askotarikoa eta malgua, norberaren egoerara egokitu ahal izateko.

Edukiari dagokionean, berriz, seihileko honetan prestakuntza-eskaintzan honako hauek izango ditugu: ikuskapen-eremua, lau ikastaro, hiru tailer, *online* mintegi bat edo webinar bat eta hiru saio partekatu, Gizarte Lanak lan-eremu/-arloan desberdinetan duen presentziari buruz.

Prestakuntza-eskaintza horrez gain, gogorarazi nahi dugu prestakuntza osa daitekeela Gizarte Langintzako beste Elkargo Profesional batzuek eta Gizarte Langintzako Kontseilu Nagusiak antolatutako beste prestakuntza-proposamen batzuen bitartez. Horiek sareen eta/edo asteko buletinaren bidez zabaltzen ditugu.

0. IKUSPEN ESPAZIOA. PROFESIONALENTZAT. Espazio honen bitartez, elkargokideentzako ikuskapen-zerbitzu berri bat ezagutzera eman nahi da.

- **INFORMAZIO HITZALDIA.** ISABEL ZAMORA AZNAR ETA EDURNE RAZQUIN JAKA. ONLINE. 2024KO URTARRILAREN 17AN. 17:30ean.

1. IKASTAROAK

Gure lanbidean aritzeko gure trebetasunak eta gaitasunak hobetzen laguntzen duten prestakuntza-jarduerak dira.

- **“ESKU-HARTZE SOZIALA ADINEKOAK ARTATZEKO ZENTROETAN”**

ALICERCE SOCIAL
VICTORIA ABADÍA
CALPENA

100 Ordu. ONLINE
2024ko OTSAILA

- **“OINARRIZKO GIZARTE-PERITAJEA. GIZARTE-ADITUAREN FROGA”**

JOSEFA MORENO
ROMÁN

250 Ordu. ONLINE
2024ko MARTXOA

- **“LIZITAZIO ETA DIRU-LAGUNTZETAN GIZARTE-PROIEKTUAK EGITEA”**

DAVID EXPÓSITO
ALVÁREZ ETA EDUARDO
GUTIERREZ SANZ

22 Ordu. ONLINE
2024ko APIRILA

- **“KASU PRAKTIKOAK, OPOSIZIOEN ERRAUSKINE”**

BERTA A. MONEO
ESTANY ETA JAVIER
DE MIGUEL MARQUÉS

12 Ordu. ONLINE
2024ko MAIATZA

2. TAILERRAK

Arratsalde batean edo bitan egin ditzakegun jarduerak dira, Gizarte Langintzaren alderdi mordoaren barnean aztertu beharreko gai interesgarriei buruzko zertzeladak eman diezazkiguketenak. Sei hileko honetan, hiru tailer planifikatu ditugu:

- **“MENTORETZA SOZIALA. TRESNA HAU NOLA ERABILI ETA PRAKTIKAN JARRI NIRE ERAKUNDEAN, ZERBITZUAN, PROGRAMAN...?”**

CRISTINA LÓPES DOS
SANTOS

5 Ordu. ONLINE
2024ko OTSAILA

- **“ADIMEN ARTIFIZIALA. NOLA APROBETXATU AA GIZARTE LANEAN?”**

STELA SOCIAL
M^a BELÉN SAMPEDRO
LIRIO

2,5 Ordu. ONLINE
2024ko APIRILA

- **“HIRIA: IKUSPEGI SOZIAL ETA FEMINISTATIK BEGIRATZEN IKASTEN”**

COLECTIVO URBANAS
TALDEA

6 Ordu
Aurrez aurrekoa
2024ko MAIATZA

3. ONLINE MINTEGIA / WEBINARRAK

Gure ustez, beharrezkoa da topaketak sustatzea eta beste elkargokideak inspiira ditzaketen gaiak, praktikak eta egiteko moduak partekatzea. Nafarroa osoko elkargokideek parte hartzea errazteko, honako hauek online eran egingo ditugu. Sei hileko honetarako ondorengoak planteatu ditugu:

- **“OPOSIZIO BATEAN NABARMENTZEKO 6 SEKRETU”**

BERTA A. MONEO
ESTANY ETA JAVIER
DE MIGUEL MARQUÉS
2 Ordu. ONLINE
2024ko MARTXOA

4. ESPAZIO PARTEKATUAK

Gure ustez, beharrezkoa da topaketak sustatzea eta beste elkargokideak inspiira ditzaketen gaiak, praktikak eta egiteko moduak partekatzea. Sei hileko honetarako, Gizarte Langintzari buruzkoak planteatu ditugu, lan-eremu ezberdinetan.

- **“GIZARTE-LANA BITARTEKARITZAN”**
2024ko URTARRILA
- **“GIZARTE-LANA OSASUN MENTALEAN”**
2024ko OTSAILA
- **“GIZARTE-LANA ETXEBIZITZAN”**
2024ko APIRILA

(*) OHAR
ARGIGARRIAK

IKUSKAPEN-ESPAZIOA

Ikuskapen-Espazioa profesionalentzat

ISABEL ZAMORA AZNAR
EDURNE RAZQUIN JAKA

AURREZ-AURREKOA
/ON-LINE

BANAKAKOA / TALDEKOA

**ESPAZIO HORRI BURUZKO
INFORMAZIO-HITZALDIA:**

2024ko URTARRILAREN 17an,
asteazkena

ORDUA: 17:30ean.



Ikuskapen profesionala **aholkularitza, zaintza, laguntza, ikerketa, gogoeta, ekintza eta prestakuntza emateko modalitate** bat da, praxi profesionala etengabe hobetze aldera. Ikuskapen edo gainbegiratzearen muina, berriz, rol profesional aktiboa betetzen duen pertsona da: profesionala eta haren zeregina. Elkarlanean eta hausnarketa eginez aztertzen dira profesionalaren esku-hartze zehatza, haren jardueran zerikusia duten sentimenduak, haren balio-eskala, haren elkarreragiteak

eta ekintza profesionala gauzatzen duen egoeretan eragina duten erreferentzia-eta interpretazio-ereduak, eta hori guztia parte hartzen duen egoera psikosozialen konplexutasunari hobeto erantzuten dioten ikuspegiak gainditzeko eta praktikak berreraikitze helburu nagusiarekin.

Aurkezpen honen bidez, elkargokideei 2024. urterako eskaintzen zaien gainbegiratze-zerbitzua ezagutzera eman nahi da.

Hitzaldirako izena ematea

IKASTAROAK

1

“Esku-hartze soziala adinekoak artatzeko zentroetan”

ALICERCE SOCIAL

PLATAFORMA DIGITALA

100 ORDU

TALDEA GUTXIENEZ:

5 parte-hartzaile.

EGUNAK: 2024ko

OTSAILAREN 5ean hasi eta
2024ko APIRILAREN 8an
amaituko da.

IZENA EMATEKO EPEA:

2024ko otsailak 1.

PREZIOA:

90 € Langabezian dauden
elkargokideentzat, aurre-
elkargokideentzat eta
Gizarte Langintzako
ikasleentzat.

110 € jardunean dauden
elkargokideentzat.

Azken aldian, bizi-itxaropena gehitu egin da, pertsonak duela hamarkada batzuk baino urte gehiago eta baldintza hobeetan bizi baitira. Aurrerapen medikoak, bizi osasungarri bat izatearen gaineko kontzientzia eta bizi-zikloen eraikuntza kulturalaren aldaketak “zahartzearen zahartzea” deitzen dena bultzatzen duten elementuetako batzuk dira. Halaber, familietan aldaketa handiak gertatzen ari dira: familien dimentsioak murriztea eta familia-egitura mota ezberdinak, familiako kideak geografikoki sakabanatzea, emakumea lan-munduan erabat sartzea, bakarrik bizi diren adinekoen kopurua handitzea, mendekotasun-egoeran dauden adinekoen zaintzen konplexutasun eta iraupen handiagoa, etab.

Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak artatzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea indarrean sartu zenean, Autonomia Erkidegoak araudiak egiten eta zerbitzu-karta zabala eskaintzen hasi ziren hasierako balorazio baten ondoren mendekotasun-maila jasotzen zuten pertsonentzat. Lege hori sortzearen ondorioz,



adinekoak artatzeko zentro publiko zein pribatuen kopurua modu esponentzian handitu zen, behar berriak estaltzearen. Era horretan, sektorean lanpostu gero eta gehiago eskaintzen ziren. Testuinguru horretan, adinekoentzako arreta-zentroak gizarte-langileentzako enplegu-sorgune nagusi bilakatu dira, eta haien figura erabat integratuta aurkitzen da haien antolaketan eta funtzionamenduan.

Bestalde, gaur egungo osasun-krisiak zentroen egungo eredu berrikusi behar dela agerian utzi du, eta, aldaketa-eragile garen aldetik, funtsezko profesionalak gara adinekoekiko esku-hartzean hobekuntza horiek zuzentzeko.

Info+
Izen-ematea

IKASTAROAK

2

“Oinarrizko Gizarte-peritajea. Gizarte-adituaren froga”

JOSEFA MORENO ROMÁN

ON-LINE



250 ORDU (235 plataforma digital ez eta 15 online zuzenean)

TALDEA GUTXIENEZ:

10 parte-hartzaile.

EGUNAK:

2024ko MARTXOAREN 4an hasi eta MAIATZAREN 23an amaitu.

IZENA EMATEKO EPEA:

2024ko otsailak 26.

ONLINE ZUZENEAN

EGITEKO EGUNAK:

Maiatzaren 16, 20 eta 22an, 16:00etatik 20:00etara

Maiatzaren 23an, 17:00etatik 20:00etara.

PREZIOA:

210 € Langabezian dauden elkargokideentzat, aurre-elkargokideentzat eta Gizarte Langintzako ikasleentzat.

250 € Jardunean dauden elkargokideentzat.

310 € Elkargokideak ez diren pertsonentzat.

Edozein prozeduratan (zibila, penala...), epaileak, askotan, ezagutza juridikoez bestelako ezagutzak beharko ditu gai batzuk eabazteko, eta, era horretan, gai batean adituak diren profesionalen laguntza beharko du, perituak izenekoan laguntza. Profesional horien artean, Gizarte Langintzako profesionalak daude. Auzitegiko Gizarte Langintzako sarrera-ikastaro honen bidez, peritu-praktika soziala ezagutzeko aukera izango dute ikasleek, peritu gisa esku hartzeko

beharrezko gaitasunak eskura ditzaten. Horretarako, orokorretik espezifikora landuko dira honako alderdi hauek: gure diziplinaren eta Justiziako Administrazioaren arteko harremana, peritu-jardunaren esparru arau-emailea eta legegilea, oinarrizko kontzeptu soziojuridikoak, peritu sozial gisa gauden jardun-eremuak, aplikatu beharreko auzitegi-ebaluazio sozialaren metodologia, edo Gizarte Langintzak balora ditzakeen peritu-helburuak, nahiz jardun librearen zenbait alderdi.

Info+
Izen-ematea

IKASTAROAK

3

“Lizitazio eta diru-laguntzetan gizarte-proiektuak egitea”

DAVID EXPÓSITO ÁLVAREZ
EDUARDO GUTIÉRREZ SANZ

ON-LINE

22 ORDU (5 saio)

TALDEA GUTXIENEZ:

10 parte-hartzaile.

EGUNAK:

2024ko APIRILaren 12an hasi eta APIRILaren 27an amaitu.

IZENA EMATEKO EPEA:

2024ko apirilak 5.

SAIOAK:

20 ordu zuzenean + 2 ordu plataforma digitalean. Online zuzeneko egunak:

1. SAIOA: 2024ko apirilak 12, Ostirala, 16:00-20:00.
2. SAIOA: 2024ko apirilak 19 Ostirala, 16:00-20:00.
3. SAIOA: 2024ko apirilak 20 Larunbata, 10:00-14:00.
4. SAIOA: 2024ko apirilak 26 Ostirala, 16:00-20:00.
5. SAIOA: 2024ko apirilak 27, Larunbata, 10:00-14:00.



PREZIOA:

100 € Langabezian dauden elkargokideentzat, aurre-elkargokideentzat eta Gizarte Langintzako ikasleentzat.

125 € Elkargokideentzat.

150 € Elkargokideak ez diren pertsonentzat.

Gizarte-proiektu bat egiteko ideia bat eratu behar duzunean, lan egiten dugun erakundetik/enpresatik edo norberaren ekimenez/ekintzailatzatik, baliteke blokeoak eta zailtasunak aurkitzea.

Gainera, esparru akademikoari erreparatuta, oso gutxitan prestatzen dira etorkizuneko profesionalak

arlotan. Era horretan, proiektu bat aurkezteko prozesuan, legearen, faseen eta abarren arabera akatsak ez egiteaz gain, behar bezala formulatzeko beharrezko urrats guztiak ezagutu behar ditugu, azkenean kalitatezko produktu bat izateko, produktu argia eta koherentea dena.

Beraz, prestakuntza hau garatuko da ekintza eta esku-hartze sozialaren esparruko profesionalak trebatzeko, gizarte-proiektu bat berme eta guzti aurkezteko beharrezko ezagutzak izan ditzaten, horretarako, puzzlea osatzen jakin behar baita.

info+
Izen-ematea

IKASTAROAK

4

“Kasu praktikoak, oposizioen Errauskine”

**BERTA A. MONEO ESTANY
JAVIER DE MIGUEL
MARQUÉS**

ON-LINE

12 ORDU (6 saio)

TALDEA GUTXIENEZ:

10 parte-hartzaile.

EGUNAK: 2024ko

MAIATZAren 27an hasi eta
EKAINAren 13an amaitu.

IZENA EMATEKO EPEA:

2024ko maiatzak 17.

SAIOAK:

1. SAIOA: Maiatzak 27, astelehena, 17.30tik 19.30tara.
2. SAIOA: Maiatzak 30, osteguna, 17.30tik 19.30tara.
3. SAIOA: Ekainak 3, astelehena, 17.30tik 19.30tara.
4. SAIOA: Ekainak 6, osteguna, 17.30tik 19.30tara.
5. SAIOA: Ekainak 10, astelehena, 17.30tik 19.30tara.
6. SAIOA: Ekainak 13, osteguna, 17.30tik 19.30tara.



PREZIOA:

80 € Langabezian dauden elkargokideentzat, aurre-elkargokideentzat eta Gizarte Langintzako ikasleentzat.

100 € Jardunean dauden elkargokideentzat.

Gizarte-lanean, suposizio praktikoak dira oposizio fasea eratzten duen bigarren froga, eta, normalean, plaza publiko bat eskuratzerakoan aldea markatzen du. Askotan, ahalegin handia egiten da oposizioaren zati teorikoa ikasteko (lehen froga, gai-zerrendaren arabera), eta bigarren zatiari ez zaio merezi duen garrantzia ematen: eskuratutako ezagutza teorikoen aplikazio praktikoak. Horrek eskatzen du bi frogetan oinarritutako azterketa-planteamendu bat egitea oposizio baterako ikastea erabakitzen denetik. Horretarako, ordea, trebetasun espezifikoak garatu behar dira.

Ildo horretan, 12 orduko tailer teoriko-praktiko bat egitea

proposatzen da. Bertan, kasu praktiko mota desberdinak identifikatzearekin, egiturarekin eta horietako bakoitzerako berariazko ebazpenarekin loturiko helburuak jorratu nahi dira. Halaber, tokiko eta autonomia-erkidegoko hainbat deialdiren adibideak aztertuko dira, betiere edukia eta metodologia ikasleen beharretara eta interesetara egokitzen saiatuz.

Landu beharreko edukien artean, kasu praktikoei buruzko zati teoriko labur bat eta hainbat suposizio ebazteko zati erabat praktiko bat bereizten dira. Metodologiari dagokionean, batez ere kasu-metodoa, lankidetzazko ikaskuntza eta azalpen-ikaskuntza erabiliko dira alderantzizko gelarekin konbinatuta. Erabili beharreko teknikei dagokienez, bereziki ideia-jasa eta eztabaida gisatua izango dira.

info+
Izen-ematea

TAILERRAK

1

“Mentoretza Soziala. Tresna hau nola erabili eta praktikan jarri nire erakundeetan, zerbitzuan, programan...?”

CRISTINA LÓPES DOS SANTOS

ON LINE

5 ORDU

TALDEA GUTXIENEZ:

10 parte-hartzaile.

EGUNAK:

OTSAILAK 13, asteartea.

OTSAILAK 20, asteartea.

ORDUTEGIA:

17:00etatik 19:30era.

IZENA EMATEKO EPEA:

2024ko otsailak 5,
astelehena.

PREZIOA:

25 € Langabezian dauden elkargokideentzat, aurre-elkargokideentzat eta Gizarte Langintzako ikasleentzat.

35 € Jardunean dauden elkargokideentzat.



Mentoretza (mentoring ere esaten zaio) garapen pertsonaleko harreman bat da, eta, horren bitartez, esperientzia edo ezagutza handiagoa duen pertsona batek esperientzia edo ezagutza txikiagoko bati laguntzen dio.

Mentoring delakoaren metodologia tutorearen esperientziatik abiatuta ikastean oinarritzen da.

Mentoreak bere ezagutza transmititzen dio ikasleari modurik eraginkor, zehatz eta antolatuenan.

Mentoreak lan egiteko premisa gisa erabiltzen du bere ikasleak ez duela duen ahalmen profesional guztia

garatu. Beraz, ikasleak dituen ezagutza guztiak bideratzeaz arduratzen da, eta bere esperientziaren eta ezagutzaren bidez indartzen ditu.

Praktikan, erreferentziatzko pertsona gisa ere planteatu daiteke zalantza zehatzen aurrean, gainbegirale edo laguntzaile gisa, pertsona tutorizatuarekin lotura espezifikoa sortuz eta esperientzia-ezagutzarekin loturiko ikaskuntza-formula bat ezarriz.

Info+

Izen-ematea

TAILERRAK

2

“Adimen Artifiziala. Nola aprobe txatu AA Gizarte Langintzan?”

ESTELA SOCIAL

ON LINE

2,5 ORDU

TALDEA GUTXIENEZ:

10 parte-hartzaile.

EGUNAK:

APIRILAk 3, asteazkena, 17:00etatik 18:30era.

APIRILAk 10, asteazkena, 17:00etatik 18:00etara.


IZENA EMATEKO EPEA:

2024ko MARTXOAK 27.

PREZIOA:

20 € Langabezian dauden elkargokideentzat, aurre-elkargokideentzat eta Gizarte Langintzako ikasleentzat.

30 € Jardunean dauden elkargokideentzat.



Gizarteak iraultza teknologiko berria du aurrean, eta Adimen Artifiziala (AA) zeregin eraldatzailea betetzen ari da gure bizitzako esparru guztietan.

Gizarte Lana ez da salbuespena; izan ere, AAk ematen dituen aurrerapen berri horien gaineko ezagutza egokia izanda, besteak beste, gure esku-hartzeen kalitatea hobetu ahal izango dugu, administrazio-prozesuak automatizatu eta gure gizarte-arretan pertsonalizazioa areagotu.

Tailerra gizarte-sektoreko profesionalentzat da, AAko

azken joerak ezagutu eta lanean nola aplikatu jakin nahi dutenentzat.

Info+
Izen-ematea

TAILERRAK

3

“HIRIA: Ikuspegi sozial eta feministatik begiratzen ikasten”

COLECTIVO URBANAS
TALDEA

AURREZ-AURREKOA

6 ORDU

TALDEA GUTXIENEZ:

10 parte-hartzaile.

EGUNAK:

MAIATZAK 7, 15 eta 22,
asteazkena.

IZENA EMATEKO EPEA:

2024ko MAIATZAK 2.

ORDUTEGIA:

17:00etatik 19:00etara.

PREZIOA:

25 € Langabezian dauden
elkargokideentzat, aurre-
elkargokideentzat eta
Gizarte Langintzako
ikasleentzat.

35 € Jardunean dauden
elkargokideentzat.

45 € Elkargokide ez diren
pertsontzat.



“Hiria, eraikitako espazio gisa, ez da neutroa generoari dagokionean; izan ere, denboran zehar espazioen gainean eta espazio jakin batzuen barruan gizonen eta emakumeen artean eraikitzen eta eraldatzen diren giza harremanak biltzen eta adierazten ditu”. (Alejandra Massolo).

Tailer honen bidez, Hirigintzaren gakoetan murgildu nahi dugu ikuspegi feministarekin, hiriaren gainean geure begirada osatzen ikasteko modu inklusiboan eta praktikoan. Gure eguneroko ingurunea

aztertuko dugu diagnostikoa egiteko erremintekin, eta horiek aztertzeko dugun gaitasuna eraikitzen eta abiapuntu eraldatzailea izaten lagunduko digute. Colectivo Urbanas taldeak egindako esperientziak partekatzeaz gain, gure hiriak berdintasun handiagoko espazio eta espazio inklusiboago bilakatzen lagunduko diguten trebetasunak praktikan jarriko ditugu, arreta pertsonengan jarri.

Info+

Izen-ematea

Online MINTEGIAK/WEBINARRAK

1

Webinarra “Oposizio batean nabarmentzeko 6 sekretu”

BERTA A. MONEO ESTANY
JAVIER DE MIGUEL
MARQUÉS

ONLINE

2 ORDU

DATA:

MARTXOAK 13, asteazkena.

ORDUTEGIA:

17:30etatik 19:30etara.

IZENA EMATEKO EPEA:

2024ko MARTXOAK 8.

PREZIOA:

5 € Elkargokideentzat,
aurre-elkargokideentzat
eta Gizarte Langintzako
ikasleentzat.



Oposizioa bizitza osorako lan bat lortzeko eta lan-baldintza bikainak izateko aukera bat da. Hala ere, funtzio publikoan sartzeko, ahalegin handia egin behar da, norgehiagoka batean nabarmendu behar baita. Beraz, ahalegindu ez ezik, plaza bat lortzeko lehen postuen artean nabarmendu behar da.

Webinar honetan, LEP baten aurrean parte-hartzen dutenei lagun diezaieketen zenbait gai azalduko dira; hala nola, zer den oposizio bat eta zenbat mota dauden, oposizio batean puntu objektiboak eta subjektiboan

bereizten, etab. Halaber, motibazioa eta garrantzi horretako erronka baten aurrean baliagarriak izan daitezkeen zenbait aholku agertuko dira.

info+
Izen-ematea

ESPAZIO PARTEKATUAK

1

“Gizarte-lana Bitartekaritzan”

DINAMIZATZAILEAK:

MAITE VIRTO, MARÍA ROVIRA, GEMA ESCALADA ETA ITZIAR GARATEA

**ONLINE /
AURREZ-AURREKOA**

1,5 ORDU

DATA:

2024ko URTARRILAK 24,
asteazkena.

ORDUTEGIA:

17:00etatik 18:30etara.

IZENA EMATEKO EPEA:

2024KO urtarrilak 22.

DOAKOA elkargokideentzat,
aurre-elkargokideentzat
eta Gizarte Langintzako
ikasleentzat.



Gure ustez, beharrezkoa da beste elkargokide batzuk inspira ditzaketen topaketak sustatzea eta gaiak, praktikak eta egiteko moduak partekatzea. Seihileko honetan, Gizarte Lana hainbat eremutan egiteari buruzkoak planteatu dira. Espazio horien bitartez, Gizarte Lana ezagutzera eman nahi dugu bere espazio eta alderdi ugarietan. Oraingo honetan, **BITARTEKARITZA eta Gizarte Lana** landuko ditugu, zerbitzu

ezberdinetan bitartekari gisa esperientzia duten gizarte-langile ezberdinen ikuspegitik.

Izen-ematea

ESPAZIO PARTEKATUAK

2

“Gizarte-lana Osasun Mentalean”

DINAMIZATZAILEAK:

EVA LIZASOAIN

LIZARRAKO OSASUN
MENTALAREN ZENTROKO
GIZARTE LANGILEA

CRISTINA ORAYEN

ERREHABILITAZIO
KLINIKAKO GIZARTE
LANGILEA

AURREZ-AURREKOA

1,5 ORDU

DATA:

2024ko OTSAILAK 28,
asteazkena.


ORDUTEGIA:

17:30etatik 19:00etara.

IZENA EMATEKO EPEA:

2024ko otsailak 26.

DOAKOA elkargokideentzat,
aurre-elkargokideentzat
eta Gizarte Langintzako
ikasleentzat.



Gure ustez, beharrezkoa da beste elkargokide batzuk inspira ditzaketen topaketak sustatzea eta gaiak, praktikak eta egiteko moduak partekatzea. Sei hileko honetan, Gizarte Lana hainbat eremutan egiteari buruzkoak planteatu dira. Espazio horien bitartez, Gizarte Lana ezagutzera eman nahi dugu bere espazio eta alderdi ugarietan. Oraingo honetan, **OSASUN MENTALA eta Gizarte Lana** landuko ditugu, lan-arlo

horretan esperientzia duten gizarte-langile elkargokide ezberdinen ikuspegitik.

Izen-ematea

ESPAZIO PARTEKATUAK

3

“Gizarte-lana Etxebizitza”

DINAMIZATZAILEA:
IZASKUN GARRIDO

AURREZ-AURREKOA

1,5 ORDU

DATA:

2024ko APIRILAK 17,
asteazkena.

ORDUTEGIA:

17:30etatik 19:00etara.

IZENA EMATEKO EPEA:

2024ko apirilak 15a.

DOAKOA elkargokideentzat, aurre-elkargokideentzat eta Gizarte Langintzako ikasleentzat.

Gure ustez, beharrezkoa da beste elkargokide batzuk inspira ditzaketen topaketak sustatzea eta gaiak, praktikak eta egiteko moduak partekatzea. Seihileko honetan, Gizarte Lana hainbat eremutan egiteari buruzkoak planteatu dira. Espazio horien bitartez, Gizarte Lana ezagutzera eman nahi dugu bere espazio eta alderdi ugarietan. Oraingo honetan, **ETXEBIZITZA eta Gizarte Lana** landuko ditugu, lan-arlo

horretan esperientzia duten gizarte-langile elkargokide ezberdinen ikuspegitik.

Izen-ematea



(*)

OHAR ARGIGARRIAK

PRESTAKUNTZAREN INSKRIPZIOEI, ORDAINKETARI ETA ITZULKETEI BURUZKO ARGIBIDE-OHARRAK:

- **Eman izena** eskainitako proposamen bakoitzerako emandako inprimakien bidez.
- Norbait erregistratu bada, baina azkenean izena emandako prestakuntzara joaterik ez badu, **prestakuntza hasi aurretik**, ahalik eta azkarren jakinarazi behar du prestakuntza egingo duen jendearen benetako datuak izateko eta gainerako pertsonei oztoporik ez jartzeko. Modu horretan, ikastaroa edo prestakuntza-jarduera benetan zenbat parte-hartzailek egingo duten jakingo da.
- **Behin prestakuntza kobratuta:** norbaitek baja ematen badu prestakuntza **hasi baino lehen**, ORDAINDUTAKO ZENBATEKOAREN %75 ITZULIKO ZAIO.
- **Behin prestakuntza kobratuta:** norbaitek baja ematen badu ikastaroa **hasi ondoren**, EZ DA DIRURIK ITZULIKO.

GOGORATU!!

Elkargoak **10 €ko deskontu-bonua** eskaini die Nafarroako elkargokide guztiei, Nafarroako Gizarte Langintzak 2024an zehar egingo dituen prestakuntzetan erabiltzeko.





COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE NAVARRA
NAFARROAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA
NAVARRA · NAFARROA

www.trabajosocialnavarra.org

Calle Irunlarrea, 54 – bajo • 31008 Pamplona • Iruñea Navarra / Tlf.: 948 240 401